




Adrian
Zelaia
Ibarra

1917

BIDeGILEAK

Egilea:

Andres Urrutia



ADRIAN ZELAIA IBARRA

(1917)

Bizi-zertzeladak

Inork galdetuko balu gure artean gaur egun zein den euskal legelaririk aipatuena, gutako askok, zalantza-izpirik gabe, batera erantzungo genuke Adrian Zelaia izena emanez eta haren biografia oparoa oroituz.

Zinez dira eragingarriak eta sona handikoak haren esanak eta eginak, euskaldunen nortasunari eutsi nahian, legez nahiz pentsamoldez.

1917. urtean jaio zen Adrian Zelaia Barakaldon. Hil batzuk geroago, haren gurasoak Sestaora joan ziren bizitzera, eta

han hasi eta hazi zen Zelaia. Aita Zebe-rikoa zuen; ama, aldiz, Begoñakoa, Bilbo ondokoa. Bi-biok baserri-girokoak izanda, berehala utzi behar izan zituzten euren familia-etxeak, eta bizimodua beste nonbait bilatu, hain zuzen ere, Nerbioi ezkerraldean.

Sestaora joan zen bikote ezkondua, eta, aita hango kontsumo-kooperatiban lanean zela, Adrian Zelaia gaztea eskolan hasi zen. Eskolako maistrak aholku eman zien Zelaiaren gurasoei, hark Bilboko Institutuan batxilergo-ikasketak egin zitzaizkion.



Aita, Adrian Zelaia Egileor (1950)



Ama, Leoncia Ibarra Beraza (1985)

Han igaro zituen bere gaztaroko lehen urteak (1927-1933), berri-berria zen institutu hartan. Han ezagutu zituen, orobat, gerora adiskide min izan zituen beste pertsonaia bilbotar batzuk, izen eta ospe handikoak letren munduan. Azaola izan daiteke haien paradigma, eta Unamuno bera ere eredu, erakunde horretako ikasgeletan entzun baitzion Adrian Zelaiak lehendabizikoz maisu bilbotarrari.

Irakaskuntzarako bidea hartu zuen jarraian Adrian Zelaiak. Bigarren Errepu-

blikaren garaia zen hura, eta sekulako asmoa eta erabakimena erakutsi zituen errepublika hark, eskoletan zebilen pedagogia eraberritzeko. Usteak, alabaina, ustel, gerra zibil latzak urratu baitzituen orduko gogo iraultzaileak.

Gaixotia zen Zelaia, eta izate horrek eragotzi zion, gerrarako deitua izan zenean, soldaduen iskiluak eramatea. Abertzaleen gudari sailetan sartuta, «Gordexola» batailoian izena eman eta segituan hartu behar izan zuen lizentzia luzea.

Francoren bultzadak Bilbo hartu ondoren, irabazleen soldadu-ilaretan ikusi zuen bere burua Adrian Zelaia, italiarren «Flecha Negra» batailoiko kide.

Gerrarako baino, bakerako zen Zelaia. Borroka amaituta, Madrilen zen, pedagogia-ikasketak unibertsitateko fakultatean sakontzeko asmoarekin. Alferrik, ordea, haren eginahalak. Itxia zuen irabazleen gobernuak fakultatea, eta deus ez egi-tea baino hobe, Zuzenbide Fakultatean matrikulatu zen, 1942. urtean ikasketak ondu arte.

Bizimodua, hala ere, eskolan izan zuen 1946. urtea arte, maisu izan baitzen bitartean.

Zuzenbideak, garai hartan, oposizioak zekartzan. Eskualdeko epailearena esku-ratu zuen, eta, 1946. urteko urrian, Galdakaon hasi zen. Ondoren, Bilboko hiri-epaile izateko oposizioak gainditu, eta Bilboko lehenengo hiri-epaitegian jardun zuen 1981. urtea arte.

Bizitzaren hariak, onik onenean ere, beste kontu batzuk ere izaten ditu. Besteak beste, ezkontzarena eta familiarena.



Adrian Zelaia, haurra eta gaztea



Adrian Zelaia eskolako maisua (Rebonza, Sestao, 1942)

1950. urtean ezkondu zen María Cruz Ulibarri Aristi andrearekin, eta lau seme-alaba izan zituzten elkarrekin: María Cruz, Carmen, Josune eta Adrian.

Jujea eta aita-familiakoa. Horra Adrianen lehen ardatzak. Ez, oster, azkenak, horretan utziz gero, ahaztuko eta ezkutatuko bailirateke bestelako norabideak, alegia, unibertsitateko irakaskuntza, eta euskal zuzenbidearen gaineko ikerkuntza eta zabaltze-lana.

Jujea, aita-familiakoa eta unibertsitateko irakaslea. Hainbatez, badirudi giza seme batek izan dezakeen oro duela Zelaiak

ere. Beste behin, okerretara ibiliko litza-teke hori uste duena, behar-beharrezkoa baita aipatzea, haren bizitza argi osotan jartzeko, Euskal Herriko hainbat erakundetan parte hartu izana. Aipagarri dira horien artean, besterik gabe, Euskalerriaren Adiskideen Elkarte, Eusko Ikaskuntza, eta, oraingokoetan, Zuzenbidearen Euskal Akademia/Academia Vasca de Derecho.



Adrian hizlari, «Udal-justiziaren lehen astea»-n (1960)



Adrian eta María Cruz ezkontza egunean (1950)



Adrian bere familiarekin

Pentsamoldeetan barrena, Adrianen pentsamendua zeinek hobeto bildu eta laburtu, bere hitzek baino:

Nire elburua izan da egia aurkitu. Bizkaia zer ete dan ikasi bear dogu Bizkaia maite gura badogu. Ezin dogu maite ezer berori ezagutu arte.

Baten batek esaten badau Bizkaia maite maite daua, baña Bizkaia paradiso bat izan zala pentsaten badau, gizon zintzoez beteta; orrek ez dau Bizkaia maite, guzur bat baino.

Bakea ez dogu lortuko guzurren ganean, lenengo ta bein egia bear da.

Gaurko bizkaitarrentzat bakea da elbururik ederrena, eta lerro oneetan egiaren billa izan gara, egiaren etxean ganean bakea ipinteko.

Aspalditik bizi da Adrian Zelaia Bilbon. Gurasoak euskaldunak izan arren, ez du berak aukera izan, haur nahiz gazte denboran, euskara ikasteko. Ez dio horrek kendu euskaldunen hizkuntzarekiko maitasuna eta atxikimendua. Hartara, Euske-razaleak (1967) bazkunaren kide sortzaile izan zen Adrian Zelaia, Bizkaiko eta Bilboko beste euskaltzale sutsu batzuekin batera. Igarri-igarrian ditu, egun ere, euskararekiko estimua eta lotura.

VIZCAYA
Y SU
FUERO CIVIL

ARANZADI

Adrian Zelaia
legelaria

Adrian Zelaiaren doktorego tesia (1965)

EPAILEA

Esana da Adrian Zelaiaren lana zein eta zer-nolakoa izan den zuzenbidearen arloan, hain justu ere, epailearena. Epai-leak, dena den, auzian diren alderdien argudioak entzun behar izaten ditu, eta, gero, ebazpena eman.

Hala gertatu zitzaion Adrian Zelaiari ere. Sarri-sarri, lan egin behar izan zuen Bilbo inguruko baserritar euskaldunekin, gerra osteko urte latz haietan, Nazario Oleaga abokatu eta euskaltzaina lehen, eta haren seme Jesus Oleaga abokatua gero, ararteko zituela.

Zeregin horretan idoro zuen Adrian Zelaia, bere hitzetan esanda, bazela, hiz-

kuntzarekin batera, euskaldun haiek bizi zuten beste errealitate berezia, alegia, foru-zuzenbidearena, baserri-giro horretan, Bilbo inguruko elizateetan eta herrietan aplikagarria zena.

Foru-zuzenbidea eta hizkuntza. Horra Zelaiarentzat bi osagai nagusiak. Ez, ordea, bakarrik, luze jardun baitzuen hark Bilboko lehenengo hiri-epaitegian, Erregistro Zibilaren ardura zuen horretan, hain justu ere.

Hurrean, han izan zuen abagune ederra euskal izenei laguntza paregabea emateko, gorantz zetorren euskal hizkuntzaren uhin berriaren seinale. Egunotan arrunta dena, ordu hartan, bakan eta ezohikoa zen.



Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren kide
(Madril, 1985)



Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren kide,
Espainiako Auzitegi Gorenean

Hiri-epaitegitik Durangoko lehen auzialdiko epaitegira joan, eta, 1985. urtean, epaileen arteko organorik gorenean izan zen kide, bost urtez, Madrileko Botere Judizialaren Kontseilu Nagusian. Agintaldi horren ostean, Adrian Zelaia julezereginetatik jubilatatu zen.

DEUSTUKO UNIBERTSITATEKO IRAKASLEA

Hamaikatxo ikaslek agurtzen dute, gaur egun ere, Bilboko kaleetan Adrian Zelaia irakaslea, berarengan ikusten eta go-

goratzen dutelako behinola bere irakasle izandakoa.

Gogoratu ez ezik, ohoratu ere egiten dute, Adrian Zelaia urte luzeetan ezin bazter-tuzko erreferentzia izan baita Deustuko Unibertsitateko Zuzenbide Fakultatean.

Azalpenetan sendo, metodologian malgu, Adrian Zelaia izan da gutako askorentzat halako irakasle trebe eta leberra, liburu ofizialetan adierazten zen zuzenbide horretatik aparte, beste errealitate hurbilagokoak bazirela azaltzen ziguna, beste modu batera esanda, gure legelarien nortasunaz eta egin-kizunaz argi eta ozen hitz egiten ziguna.



Deustuko Unibertsitateko irakasleak: Zelaiaaren eskuin aldean, Mañarikua eta De Angel (Bilbo, 1966)



Deustuko irakaslea, omenaldia: Mañarikua, Aranzadi, María Cruz Adrianen emaztea, Adrian Zelaia, San José eta Obieta irakasleak

Ez zituen maite hitzez-hitzezko errepikapen antzuak, zuzenbide-ikasketetan usu erabiltzen zirenak. Nahiago zuen asmenari bidea irekitzea eta inguruan geni-

tuen ikasbide praktikoak erakustea, betiere legelari handien aipuak eta ereduak bazter utzi gabe.

Aldiak aldi, Bigarren Errepublikako maisuak laster igarri zuen zuzenbidearen pedagogia irauli beharra. Deustuko Unibertsitatean sartu zenetik (1951) bere ibilbide akademikoa agortu arte (1985), garai desberdinetan aritu zen Adrian Zelaia. Azkenetan, demokrazia eskuratu ondoren, egundoko parada ikusi zuen aspaldiko ametsa egia bihurtzeko. Hura zen «Foru-zuzenbidea eta zuzenbide autonomikoa» ikasgaia Deustuko Unibertsitateko Zuzenbide Fakultatean barruratzeara. Esan eta egin; 1982-1983 ikasturtea izan zen horren sarrera-data, ondotxo dakigunez harrezkero ikasgai horren irakasle izan garenok.

Irakasleak ikasleak behar dituela ezin uka. Ikasleengandik harago ere, irakasleak arrangura egokia erakutsi behar du, etorkizunean irakasle berriak izango direnak prestatzeko.

Prestatze horrek, zernahi gisaz, arnasa luzeko formazioa galdatzen du. Hala ulertu zuen aspalditik Adrian Zelaia, egun



Deustuko irakaslea, foru- eta autonomia-zuzenbidearen ikasgaiari

Instituto de Estudios Vascos, eta hasieran Departamento de Estudios Vizcaínos izeneko sailean, hori sortu zuenean Deustuko Unibertsitatean Bizkaiko Foru Aldundiak. Hiru arlo ziren han: euskara, historia eta zuzenbidea. Alfontso Irigoyen, Andres Eliseo de Mañarikua eta Adrian Zelaia izan ziren, hurrenez hurren, gai bakoitzaren arduradun nagusiak. Han eman zituen Adrian Zelaia euskal zuzenbideari buruzko lehen ikastaroak.

Hara bildu zituen Adrian Zelaia irakasle berriak sustatzeko ekimenak. Antolakuntza horretan egin zituzten euren lehen saioak egun zuzenbide pribatu nahiz pu-

blikoan Deustuko Unibertsitateko irakasle diren tatik askok.

Lotura ezagunak zituen, gainera, delako horrek Adrian Zelaia urte batzuk lehenago hasi zuen ibilbidearekin, alegia, Espainiako herrialde desberdinetan indarrean zeuden zuzenbide zibil berezi nahiz forudunak lantzearekin. Arean ere, Instituto de Derecho Foral sortu zen, eta hantxe jardun zuen Adrian Zelaia, urte luze eta neketsuetan, Kataluniako, Aragoiko, Nafarroako, Balear Uharteetako eta Galiziako legelariarekin batera; gerora ere, bere atala izango zuen horrek Bizkaian eta Araban.



Deustuko Unibertsitateko irakaslea Foru-legedi astean: Jesús Oleaga, Encarna Roca, Gernikako alkatea, Adrian Zelaia, Jesús Álvarez Carballo eta Juan Ramón Urquijo (Gernika, 1978)

Lanak, buruen-buruenik ere, emaitzak ekartzen ditu, eta Adrian Zelaia Kode-gintza Batzorde Nagusiko kide izendatua izan zen, hori dela Espainia osorako organorik gorena, zuzenbidearen aldaberritze-uneetan.

Ostera ere, foru-zuzenbide zibila eta Euskal Herriko nortasun juridikoa hizpide eta helburu, hurrengo belaunaldiei euren historia ostendu baino, luze-zabal emateko.


IKERTZAILEA

Epaile eta irakasle izateak nahitaez ekarri behar zuen ikertzailearen zeregina. Halaxe gertatu da beti Adrian Zelaiaren bizitzan. Hasiera eman zion horri doktorego-tesiak, *Vizcaya y su fuero civil*, 1965. urtean Ma-


drileko Unibertsitate Zentralean aurkeztu zuenak. Harik aurrera, hurrenkera luzea ontzen dute foru-zuzenbideari eskainita-ko lanek.

Liburu, artikulu, hitzaldi... zer ez du Adrian Zelaia egin Euskal Herriko zuzenbidearen alde. Kontuak kontu, dena den, Zelaia ez du Euskal Herriko foru-zuzenbidea aintzat hartu, zerbait historiko eta hilaren antzera, ezpada bizirik eta indarrean dagoen araubide gisa, iragane-ko euskaldunena baino, egungo euskal gizartearen premia eta beharrei erantzun behar diena.


Tituluak aipatzekotan, lehen-lehena, bere tesia, *Vizcaya y su fuero civil*, 1965. urtean argitaratua, eta *Compilación de Vizcaya y Álava*, 1978. urtekoa. Azpimarratzekoak, berebat, liburu-, artikulu- eta hitzaldi-zerrenda luzearen barruan, *Derecho foral y autonómico vasco* (1984-1985), *Derecho autonómico vasco* (1995), *Derecho civil vasco* (1993), *Aforados y no aforados en Bizkaia* (1995), *Ley de derecho civil vasco* (1997) eta *Humanismo y libertad en el Fuero de Bizkaia* (2001); *Ley sobre el Derecho Civil Foral del País Vasco* (1997) eta,




Bizkaiko eta Arabako Foru
Konpilazioaren azterketa (1978)



Euskal zuzenbide zibilaren
azterketa (1993)




Euskal Autonomia-
-zuzenbidearen azterketa (1995)




Bizkaitarren Foru zuzenbide
zibilaren azterketa (1995)



Euskal Herriko Foru zuzenbide
zibilaren lege berriaren
azterketa (1997)



Bizkaiko Foruaren azterketa
(2001)



Adrian Zelaiaren artikulurik
esanguratsuenak (1999)



Manuel Irujo Saria, Eusko Jaurlaritza (2007)

halaber, bere artikuluen bilduma ederra, *Selección de Estudios Jurídicos (En especial sobre el País Vasco)* (1999).

Horra hor uza ugaria, oraingoz agortu ez dena, azken kapituluan azalduko denak gogoraraziko baitigu Adrian Zelaiak esku artean darabilen ikerlana, Zuzenbidearen Euskal Akademia erakunde-sorrearakin.

EUSKAL KULTURAREN ERAGILEA

Zenbatuezinak izango lirateke Adrian Zelaiaren ekinak eta ahalak euskal kulturaren alde. Nonbaitetik hasteko, kultura-elkarreak nabarmenduko dira hemen, eta, aldi berean, jarduera bereziak, obrek erakusten baitute Adrian Zelaiaren ardatz nagusia, hots, herriaren alde eta mesederako


lan egitea, bikaintasun akademikoa eta gizartearen eskakizunak lotuz eta estekatuz.

Aipagarri lehena «Semanas Internacionales de Antropología Vasca» ekimena izan zen, XX. mendeko hirurogeita hamargarren urteetan. Aurreko erregimen politikoaren buruzagiaren garaia bertan behera zetorrela, Adrian Zelaiak, Jose Luis Goti medikuak, Andres Eliseo de Mañarikua apaiz eta ikertzaileak, eta beste herrizale batzuek asmatu zuten ordu arte sakabanaturik zeuden intelektual euskaldun eta euskaltzale askoren bilgunea, jardunaldi batzuen inguruan. Zuzenbidea, ekonomia, historia, euskara... guztiak ziren aztergai, gose eta ezin ase zegoen jende askorentzat. Jardunaldi horiek arrakastatsu gertatu ziren, eta euren testuak, kosta ala kosta, José María Martín de Retana argitarazleak jarri zituen guztion eskura, zentsuraren eta debeku askoren gainetik. Han zen geroko kultura-azpiegituraren hasiera eta sorrera.

Gogoangarri bigarrena, eta askorentzat ezagunena, Euskalerrriaren Adiskideen Elkartearen inguruan Adrian Zelaiak zer-



Euskal Antropologiaren Nazioarteko Asteak: Juan Ramón Urquijo, Adrian Zelaia eta José Luis Goti



Manuel Lekuona Saria, Eusko Ikaskuntza (1995)



Euskalerriko Adiskideen Elkarte. «Bizkaia XXI. mendearen aurrean lehen jardunaldi»-en itxiera-ekitaldia: Iñaki Barriola, Javier Caño, Adrian Zelaia, José María Makua, Gregorio Monreal (Bilbo, 1984)

tu zuena. Bor-borreetan zetorren demokrazia hastapenetan, nabaria zen Adrian Zelaia, Jesus Oleaga eta Jose Ramon Urikoren bultzada, Rafael Ossarekin batera, Euskalerraren Adiskideen Elkarteak antolaturiko ekitaldietan. Adrian bera Bizkaiko Batzarraren burua izan zen aldi batzuetan, eta elkarte osoaren buru ere bai, hiru urteko aldian (1981-1983).

Ezin baztertuzkoa hirugarrena, demokraziak ekarri baitzuen, berpizte horretan, gerrak desagerrarazi zuen Eusko Ikaskuntza elkarte berriro ere abian jartzea.

Adrian Zelaia gogotsu hartu zuen parte egitasmoan, eta haren eskutik etorri ziren elkarte berriaren araudian barruraturiko xedapenetatik hainbat.

Elkarte horren «Zuzenbide» sailaren burua izan zen aldi batean Adrian Zelaia, eta Manuel Lekuona Saria eman zion elkarte horrek 1995. urtean. Lehendik ere, 1993. urtean, omenaldi egokia eskaini zion Euskal Zuzenbide Pribatuari buruzko III. jardunaldietan. Hor gailendu zen, berriro, Adrian Zelaia Euskal Herriari eta euskal kulturari betidanik opa dien arreta berezia.

Baziren, beste alde batetik, Adrian Zelaia-ren ekimen argi eta zolia. Hortaz, Euskalerraren Adiskideen Elkarteak zazpi alditan antolatu zituen «Bizkaia XXI. mendearen aurrean» jardunaldiak. Egun begi-bistan ditugun errealitate asko azaldu ziren han, egitasmo garden eta egingarrietan.

Beste batzuen artean, bi gai izan daitezke horretan azpimarragarri, Adrian Zelaia bizi-ibilbidea ikusita. Lehena III. jardunaldiei legokieke, «Plurilinguismo y evolución cultural» (1985) izan baitzen haren

lelo nagusia. Eta, bigarrena, VI. jardunaldia dateke, Zelaiarentzat bere-berezko gaia baitzen bertan aztergai: «Actualización del Derecho civil vizcaíno» (1986). Horrek ekarriko zuen, luze baino lehen, 1992. urtean Eusko Legebiltzarrak aldarrikatu zuen Euskal Herriko Foru Zuzenbide Zibilaren Legea, 1959. urtetik zetorren legeria indargabetu zuena. Horretarako, beren-beregi antolatu zuen Bizkaiko Foru Aldundiak gero azalduko den halako batzorde berezia, hainbat legelarik osatu genuena.

Kezkarik kezka, herria zuen gogoan, lehen esan den legez, Adrian Zelaiak. Herri hori, nolanahi ere, une erabakigarriak bizitzen ari zen. XX. mendeko hirurogeita hamarretan erregimen gogorretik ustezko demokraziara zihoan Euskal Herrian norabide desberdinak suma zitezkeen. Francoren azken aldia zen, eta erregimenak aurpegi bestelakoa erakutsi nahian edo, Ikerketa Batzordea antolatu zuen, Bizkaia eta Gipuzkoako lurraldeetan erregimen administratibo berezia ezartzeko asmoarekin.


Funtsean, han zen Kontzertu Ekonomikoa berreskuratu nahia, 1937. urtetik au-




Adrian Zelaia, Bilboko Kontsula: Jose María Arriola, Adrian Zelaia, Rafael Ossa eta José Miguel de la Rica (Bilbo, 1993)

rrera Bizkaia eta Gipuzkoari kendu zitzaiena, Francoren aurkakoak izategatik. Batzordekide izan zen Adrian Zelaia, jada pertsona aipatua halako gaietan.

Batzorde haren lanak, zernahi gisaz, 1976. urteko azaroan bukatu ziren. Beranduegi, antza, eupadaka zetorren demokraziaren zirimolan galdu baitziren, Euskal Herriko autonomia-estatutuaren mesederako. Ekimen berriaren partaide Adrian Zelaia, eta haren hitza, beste



«Bizkaia XXI. mendearen aurrean»,
III. jardunaldiak (Bilbo, 1985)



«Bizkaia XXI. mendearen aurrean»,
VI. jardunaldiak (Bilbo, 1986)

behin ere, erabakigarri, foru-zuzenbide zibila berreskuratzeko bidean. Hona hemen, esandakoaren argigarri, Autonomia Estatutuaren 10.5 artikulua, aurrerantzean indarreko testu-legea izango zena:

10. *artikulua*.—Euskal Herriko Komunitate Autonomoak ondoko gaiei dagozkienean konpetenzia eksklusiboa du: 5. Euskal Herria osatzen duten Herrialde Historikoen Zuzenbide Zibil Foral eta berezi —idatzi nahiz ohizkoaren— kontserbazio, aldatze eta bilakaera, bai eta beraren indarraren lurralde-barrutiaren finkapena ere.

Esamolde horrek ahalbidetu zuen, urte batzuk geroago, Euskal Autonomia Erkide-

goan lege zibilak eraberritzea, gorago aipatu den bezala. Bizkaiko Foru Aldundiaren eraginez, eta Ramon Varela legelari ahortzezina-
ren gidaritzapean, han jardun genuen luze, zabal eta asmotsu, hainbat abokatuk, notariok, epailek eta eragile juridikok, Adrian Zelaia-
ren zuzendaritza ziurra iparrorratz alboraezin genuela. Batzorde horrek lortu zuen, legea onetsi eta hurrengo urtean, 1993. urtean, hain justu ere, Bizkaiko Foru Aldun-
diaren Andres Eliseo de Mañarikua saria.

Esan gabe doa egite horiek omenaldi eta esker-emate ugari ekarri dizkiotela Adrian Zelaia-
ri. Zerrenda bakarrera bildu ezinean, hona hemen hots handikoak: Euskal Ikas-



Bizkaiko Foru zibil berria antolatu zuen legelarien batzordea: Adrian Zelaia, Itziar Monasterio, Mixel Unzueta, José Miguel Fernández Bilbao, Julián Arzanegui, Jesús Oleaga, Eduardo Barreda, Javier Caño, Ignacio Etxebarria, José María Arriola, Jesús Hernández, Javier Oleaga, Andres Urrutia eta Ramón Varela (Gernika, 1991)

kuntzaren Manuel Lekuona Saria (1995); Sabino Arana Fundazioaren Saria (1995); Deustuko Unibertsitatearen omenaldia (1999); Bilboko Udalarena (2002); Eusko Jaurlaritzaren Manuel de Irujo Saria (2007); berrikitan, Deustuko Unibertsitateko Zuzenbide Fakultatearen Ikasle Ohien Elkartearena (2008); eta, bere esanei kasu eginez, berarentzat hunkigarriena, hau da,

Sestao herriak Seme Kutuna izendatzea (2008). Bestalde ere, aspalditik da Adrian Zelaia Bilboko kontsula (1993), Bilboko Merkataritza Ganberak izendatuta.

Horietan guztietan Adrianek erakutsi ditu bere gizalegea eta zintzotasuna, herriarengandik jaso dituen berak herriari eskainitako maitasuna eta atxikimendua.

EUSKALDUNEN iskerea, mundikoa dan ez dakiguna, baiña askoren eretziz Europar zaarrena dana, gizon ikastun eta jakintsuak enera-zoten dituna da, ta millo bat lagunek euren artu-emonetako berbeia dabena, Alkartasun onek goragarritzat eta aintzat artu gura dau, eta orretarako urrengo arauak ditu oiñarri.

LENGO ARAUA: IZENA.—Araudi onen esanetara jardungo dauan Alkartasunak, izen auxa erabiliko dau: «EUSKERAZALEAK» «EUSKEREK ERABILTE ALDEKO ALKARTASUNA».

2-GN. ARAUA: ELBURUAK.—Araupean ezarri dituan elburuak, euskerari iraunerazotea da, ta indartzea ta erabiltea; orretarako, edertiko, jakintzako ta legeak aukerara eskintzen deuskuezan eginbide ta teknikaz balio gura dau.

3-GN. ARAUA: ETXEA.—Alkartasun onen gizarte-etxea bein-beiñeon, Bilbon, Epalzaren alargunaren kaleko 12-garrenean, 2-gn. oiñean, 1-go departamentuan izango da.

2-garren arauan dagozan elburuak lortuerazoteko, Alkartasun onen barrutian bertan, errietako ordezkartitzak sortu leitekezala erabagi dogu.

4-GN. ARAUA: LUR-BARRUTIA.—Bizkai lur-mugen barruan dagoan lurraldea izango da Alkartasun onen egingoa bateteko lekua.

Adrian Zelaia euskararen bidetik

Euskerazaleak elkartearen sorrera
araudia (Bilbo, 1967)

Ezaguna da Adrian Zelaia ez zuela gaztaroan euskara ikasteko aukerarik izan. Gabezia horrek beti arranguratu du, eta aspalditik ekin zion Bizkaiko euskara ikasteari. Maiz erabili du euskara, eta beti-beti, hitzaldia eman izan duen ba-koitzean, tartetxoa eskaini dio euskarari, alde edo moldez, guztion begi-bistan jar-
tzeko euskarari dizkion maitasuna eta esti-
mua, bere seme-alaba euskaldunek parte-
katzen dituztenak.

Adrian Zelaiaren testigantza euskarazko testuetan urri bada ere, maiztasun gehia-
gokoak dira haren egitateak eta eGINE-
rak, euskaldunon hizkuntzaren babe-
serako.

Lehendabiziko harria, oinarria, Euskera-
zaleak elkartean jarri zuen Zelaia.

1967. urtea zen, eta hainbat bizkaitar eus-
kaltzalek euren zinak eta minak erakutsi
zituzten euskararen inguruan, garai har-
tako agintari politikoaren jarrera axolaga-
bearen aurrean.

Carlton Hotelean bildu ziren, besteak
beste, honako hauek, agiriekin diotenez:
José María Leizaola; Carlos González
Echegaray; Fernando de Zubizarreta;
Jesús Acha; José Antonio de Montiano;
José de Ezpeleta; José Luis Bengoa Zubi-
zarreta; Cástor de Uriarte; Jesús de Olea-
ga; José María Martín de Retana; Miguel
Angel Astiz; Eusebio de Erquiaga; Julia-

na Berrojalbiz; Leopoldo Zugaza; Juan Ramón Urquijo; eta, orobat, Adrian Zelaia bera.

Ekitaldiaren argazkian ikus daiteke, euren artean, gerora elkartearen buru izango zen Jesus Oleaga legelaria zutik eta hizlari, Adrian Zelaia adi-adi dagoen bitartean, Juliana Berrojalbiz euskaltzalea aldamenean duela. Beste hau, aldiz, elkartearen estatutuetakoko lehen eta bigarren artikuluetan irakur daiteke:

Lenengo araua: IZENA. Araudi onen esanetara jardungo dauan Alkartasunak, izen auxerabilikodau: «EUSKERAZALEAK», «EUSKEREERABILTE ALDEKO ALKARTASUNA».

2-gn araua: ELBURUAK. Araupean ezarri dituan elburuak, euskereari iraunerazotea da, ta indartzea ta erabiltea; orretarako, edertiko, jakintzako ta legeak aukerara eskintzen deuskuezan eginbide ta teknikaz balio gura dau.

Euskerazaleak elkartearen kide zintzoa izan da beti Adrian Zelaia. Zintzo eta eskuzabala, aldian-aldian bere testuak argitaratu baititu *Zer* aldizkarian, Euskerazaleak elkartearen aldizkarian.



Euskerazaleak elkartearen sorrera ekitaldia (Bilbo, 1967)

Hona 1982. urteko testua (*Zer* aldizkaria, 52. zk.):

Olazar jaun maitea:

Aspalditik nabil alegin aundiak egiten gure euskera maitegarria ikasteko. Baña, ikusiko dozun lez, ez dot ondiño apur bat baño ikasi idazteko gitxi eta itz egiteko gitxiago, batez be gizon jakintsuagaz berba egiteko. Orregaitik parkatu egin bear dozuz nire okerrak eta nire asmoaren mamiña erderaz idazten ba dot. Bestela ezin ulertuko izango daustazu.

«Bizkaiko Forua» liburu barria artu ta erabilli dot eta nire ustez (nire eritxiak



ez dau ezer balio, ori ba-dakit) liburu oso apaindu ta ederra da. Zuk esan dozu «Zer» aldizkarian «euskera ederra, jatorra, garbia, ondo josia, egokia, berba baten esateko, benetako bizkaiera, bizkaiera apaindua, zuzendua, egokitua ta batua dala». Zure eritxiak oso poztuten nau, neu be Puxana jaunaren lagun eta adiskide nazalako.

1992. urtean, berriz, hauxe (*Zer* aldizkaria, 165. zk.):

Zori txarrez, ni euskeraz larri nabil. Zuk badakizu eta parkatuko dozu ori.

Baiña datozen urte ta mendeetan beste gauza barri bat izango da.

Besarkada bat eta zorionak danoi.

Edota, 1986. urtean, «Bizkaia XXI. mendaren aurrean», VI. jardunaldietan idatzitakoa:

Jaun Andreok. Auxe da gure lana: Bizkaia ta Euskadi aurrera eroateko alegin aundienak saiatu.

Gure geroko Bizkaia edo Euskadi, gustiz ederra ta pozgarria egin nai dogu. Orreta-

rako danok egin bear dogu gure alde; lan eta asmo bikainak bear doguz.


Datorren Euskalerrian gure lenengo elburua, aurrera joateko, bakea izango dala uste dot. Bakea bai kaleetan, bai lantegietan, bai biotz erdietan batez be. Asi baño len bakea gure barruan sartu bear da.

Auxe da ba gure elburu nagusia: danen biotzetan eta danen gogoetan gure Euskalerriz zoriontsu ta baketsuaren irudia sartu sakonetan.

Beti bezela, emendik aurrera prest egongo gara Bizkaia ta Euskadi osoa goratuteko eta etorkizun zoragarria eraikituko.

Guztiori eskerrik asko; eta Euskalerriko Adiskideen Alkarte'ko Bizkaiko Batzordeak dei egiten dautsue zuen adiskidetasuna beste une batzuetan lortu, ta eukiko daigula ziur gagozan itxaropenean. Agur.

Hitz gutxitan esateko, euskaltzale sutsua eta bultzatzaile apartekoa, euskararen esparruan, Adrian Zelaia. Legelari euskaltzale eta euskaldun askoren antzera, euskal foruak eta euskara suspertzen gogaitu ez dena, ezta gogaituko ere.



Zuzenbidearen Euskal Akademia

Euskal Zuzenbidearen Klasikoak
bildumaren lehen zenbakia,
Adrian Zelaiaren eskutik (Bilbo, 2004)

Orain artekoa iraganari badagokio ere, bada garaia Adrian Zelaiak egunotan darabilen ekimena aipatzeko.

Etorri ere, antzinatek etorri zitzaion Adrian Zelaiari zuzenbidearen akademia atontzeko gogoia. Proposamena non egin eta Euskalerriaren Adiskideen Elkartearen egin zuen, eta haren itzalpean sortu zen Zuzenbidearen Euskal Akademia, 2003. urtean. Bertara bildu dira, Adrian Zelaia lehenakari dela, anitz eragile juridiko, abokatu, notario, jabetza-erregistratzaile, prokuradore, juje, unibertsitateko irakasle... Euskal Autonomia Erkidegoan zuzenbidearen eremuan lan egiteko.

Elkartearen estatutuetan ezin argiago dau-
de jasota xedeak:

Artículo 2.—Fines

La Academia se propone el estudio, investigación y divulgación de las Ciencias Jurídicas y en especial las relacionadas con el Derecho vasco a partir de la Constitución española, el Estatuto de Autonomía del País Vasco y las normas emanadas de los órganos autonómicos y forales, así como la doctrina jurídica y la jurisprudencia aplicable y los usos y costumbres tradicionales y vigentes.

Adrianen hitzak ere, zalantzarik gabekoak
(ZEA/AVDren *aldizkaria*, 2. zk.):



Ez uste gure legeak edo munduko lege guztiak, egiazko zuzenbide bakarra dirala. Eurak zuzenbidearen gorputzak dira, baina bere arima bear dabe zeozer izateko. Zuzenbidearen arima aurkituteko, euren

zentsunaren billa joan bear dogu. Ezagutu bear dogu zelan ete zan erriko izaera, gure erriko sentimentu sakonak. Ez bakarrik zer esan dauan lege batzuk egitean. Ikasi bear dogu zer gura dauan eta zer pentsatu izan dauan lege orreik egiteko.

Tamalez badaukaguz liburuak lege ugariz beteta, baina nire ustez ez dogu inoiz bezeatz aurkitu zelako oitura, asmo, ta guriak izan ziran errikoak, berba batez esateko, zer ete zan gure zuzenbideko arima. Eta zer dan gure erriaren zentsuna.

Akademiak biar ona artu gura badau, ez da naikoa izango zuzenbidearen gorputza. Beraren arima, beraren espiritua da gauzarik garrantzitsuena.

Edu berean, atal desberdinak sortu dira bertan: zuzenbide pribatuarena, zuzenbi-



Zuzenbidearen Euskal Akademia, sorrera ekitaldia. Zutik, ezkerretik eskuinera: Jabier Oleaga, Mitxel Unzueta eta Andres Urrutia; jezarrita, ezkerretik eskuinera: Emilio Múgica, Fernando Salazar, Adrian Zelaia, Santiagu Larrazabal eta Luis Elizegi (Bilbo, 2003)



Zuzenbidearen Euskal Akademiaren lehen zuzendaritza. Ezkerretik eskuinera: Lorenzo Goikoetxea, Jabier Oleaga, Jabier Muguruza, Germán Barbier, Andres Urrutia, Adrian Zelaia, Tatiana González, Jose Ignacio Berroeta (omendua), Eduardo Escribano, Jabier Corcuera, Luis Elizegi eta Santiago Larrazabal (Bilbo, 2003)

de publikoarena eta zerga-zuzenbidearena. Hizkuntzetan ere, gaztelania eta euskara dira han lan-tresnak.


Hari nagusiak, bide beretik, honako hauek:

a) foru-zuzenbide zibilaren eraberritzea, Euskalerriaren Adiskideen Elkartearen barruan landutako aurreproiektua finduz eta zorrozituz, urtero-urtero egiten diren jardunaldiak ahortzi gabe; b) zuzenbide publikoaren alorrean, jardunaldiak antolatzea, egun ardura-iturri diren gaiak

(Europa, Kontzertu Ekonomikoa...) aztertuz; eta c) zerga-zuzenbidearen saillean ere, jardunaldi eta lanbide-azalpenak eginez.

Horien eramaile, Akademiaren Aldizkaria, zenbaki arrunt eta bereziekin, euskarari beraren lekua gordetzen diona eta euskaraz oso-osorik ondutako zenbakiak ere badituena.

Adrian Zelaiaren gidaritza horrek beti izan ditu bere ezaugarriak Akademiaren



Abeurrea bildumaren lehen zenbakiak, Adrian Zelaiaren eskutik (Bilbo, 2005-2006)

ibilbidean. Edonondik begira dakiola ere, bera da Akademiaren hauspoa eta arima, eta, zer esanik ez, langilerik pres-tuena eta emankorrena. Bere eskutik etorri dira Akademiaren argitalpen-bildu-mak, *Euskal Zuzenbidearen Klasikoak* eta *Abeurrea*. Horra bildu dira, lehen kasuan, XIX. mende hondarrean eta XX. mende ha-sieran autore klasikoek (Jado, Angulo, Chalbaud, Hormaetxe...) foru-zuzenbide zibilaren arloan argitaratu zituzten liburu ez-ugariak. Bigarrenaren kasuan, Adrian Zelaia berebiziko ahalegina egin du Bizkaiko foru-zuzenbidearen historian ohargarri diren pasarte eta pasadizoetatik hainbat irakurlearen eskuetan jartzeko, adibidez, «Señores de Bizkaia» eta «Así

nació Bizkaia», *Abeurrea* bildumaren lehen bi zenbakiak.

Arrakasta lortu duenik ezin ukatu, iku-siak ikusi.

Aurrera doa Akademia. Dagoeneko sei urte egin ditu, eta, Bizkaian sendoen ba-dabil ere, beste euskal herrialdeetara za-baldu da, egun Gipuzkoa ere barruan duela.

Aurrera doa Adrian Zelaia, eta aurrera darama Akademia. Hor ditu bere aha-lak eta leherrak. Hortxe ere, bere egin-kizunak eta egitekoak. Haren ibilbidea gertu-gertutik ezagutzeko zoria izan du-gunok jakin badakigu berak sustatzen di-tuen norabide horiek gureganatu ez ezik, zabaldu ere egin behar ditugula, Adrian Zelaia maisuaren mezua hurrengo belau-naldiei eskuratu nahi badiegu.

Foruak, euskara... mezu zaharra dirudi, azaletik behintzat. Adrian Zelaiaren uste eta egitadetan, aldiz, bizi-bizia eta gaur-kotasun handikoa, eta guretzat ere, erron-ka bazterrezina. Jakingo ote dugu guk ere hori gureganatzen, Adrian Zelaia eraku-tsi digun bide, espiritu eta tenore berean?

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak, liburuxka hau egiteko jasotako laguntzagatik, eskerrak eman nahi dizkie:

- Adrian Zelaia jaunari eta beraren familiari
- Zuzenbidearen Euskal Akademiari
- Deustuko Unibertsitateari
- Eusko Ikaskuntzari
- Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteari

Zuzendaritza:	Mikel Atxaga
Argitaraldia:	1.a, 2009ko abendua
Ale-kopurua:	2.300
©	Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa Kultura Saila
Argitaratzailea:	Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz
Argazkilaria:	Edorta Sanz
Fotokonposizioa:	Ipar, S. Coop. Zurbaran, 2-4 - 48007 Bilbao
Inprimaketa:	Grafo, S.A. Cervantes etorb., 51 - 48970 Basauri (Bizkaia)
ISBN:	978-84-457-3018-8 (Lan osoarena) 978-84-457-3021-8
L.G.:	BI - 3.368-2009

BIDOGULEAK



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística